


Enpresa zientzietako ikasle gazteek garapenari eta justizia globalari buruzko gaiez duten iritzia



Mugarik gabeko
Ekonomilariak



Economistas
sin Fronteras



Aitortu – Ez Komertziala – Partekatu 3.0 lizentzia beraren arabera. Lan hau libreki kopiatu, banatu eta jakinarazi daiteke, baldin eta egilea adierazten bada eta xede komertzialetarako erabiltzen ez bada. Aldatzen edo eraldatzen bada, edo lan eratorriren bat egiten bada, lizentzia berdinarekin pean baino ezin izango da banatu.

Txosten osoaren egilea:



Laguntzailea: **Unai Gondra (Ekonomiako gradua EHU/UPV)**

Egikaritze-laburpena: **Laura Ruiz (Economistas sin Fronteras/Mugarik Gabeko Ekonomilariak)**

Diseinu eta maketazioa: **Erreka Multimedia S.Coop**

Itzulpena: **HoriHori**

Babesleak:





Aurkezpena eta ondorioak

2016-2017ko ikasturtean, UPV/EHUko Donostiako campuseko Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako 301 ikaslek inkesta bat egin zuten garapenari eta justizia globalari buruzko kontuez duten pertzepzioaren, jarreraren eta iritzien inguruan.

Laginarekin ezaugarriak: inkestatutako pertsona gehienak 18 urtetik 20 urtera arteko adin-tartean zeuden (% 77,1), eta ia ez zegoen 24 urtetik gorako inkestaturik (% 5); sexuaren arabera banaketa ia parekoa zen; parte-hartzaileen % 15,3 soilik zeuden erakunde edo mugimendu sozial batean.

Egindako inkestaren emaitzei esker ondorio hauek atera ahal izan ditugu:

1. Gazteek errealitateaz duten pertzepzioa nagusiki Internetetik eta sare sozialetatik jasotzen duten informazioarekin eratzen da, eta telebistak, irratiak, prentsak edo gainerako buletinek ez dute aurrekoek bezainbesteko eraginik.
2. Tokikoaren eta globalaren arteko erlazioaz ulermen mugatua dute:
 - Ikasleak ez daude ohituta *Tasa Tobin*, *Aldebiko Lankidetzaren eta Garapen Iraunkorreko Helburuak* bezalako kontzeptuak entzuteran, eta ez dute nazioarteko erakundeei buruzko ezagutza handirik ere, besteak beste Munduko Bankua edo Nazioarteko Diru Funtza.
 - Mundu mailako pobrezia arrazoia dagokion herrialdearen barneko faktoreekin lotzen dira, besteak beste ustelkeria, hezkuntza mugatua, desberdintasun sozialak eta gerrak eta

gatazkak. Hala ere, irismen globala duten egiturazko kontuak ez dira garrantzizko faktoretzat hartzen, besteak beste merkataritza politikak, Banku Mundialaren edo NDFren politikak eta klima-aldaketa.

- Eguneroko ekintzek pobretutako herrialdeetako biztanleei eraginik egiten ez dietenaren pertzepzioa oso hedatuta dago.

3. Garapenaren eta pobreziaren arrazoiei, hartu beharreko irtenbide posibleei edo desberdintasunei eta injustizia ezaren kontra borrokatzeko arduradunei buruzko partekatutako iritzirik ez dago. Hala ere:

- Herrialde pobreen egoerari buruzko kezka orokorra dago, eta nahikoa garrantzia ematen diote elkartasunak, GGKE-ek eta gizarteen elkarteek egiten duten lanari. Hala ere, pobreziaren aurkako borrokan garapenerako lankidetzak egiten duena zalantzan jarri dute, eta hurbilen dagoen pobrezia arintzeko dirua erabiltzeari lehentasuna eman diote. Izan ere, GGKE terminoa ez dute asko ezagutzen ikasleek.

- Nabarmentzekoa da zenbait nazioarteko erakundeekiko tokiko ikuspegia, ikuspegi globala eta hurbiltasunari dagokiona falta dela, baina hala ere ikasleek lehentasunezko ardurak ematen diete Nazio Batuei edo Europar Batasunari pobreziaren eta desberdintasunen aurkako borrokan. Gainera, horiek zeregin horretan eraginkorrak direnaren nolabaiteko ideia dago.

- Enpresa zientzietako ikasleek ez dute uste sektore pribatuak nabarmendutako ardurak duenik pobreziaren, desberdintasunen eta justizia ezaren aurka borrokatzerako orduan.

- Maila pertsonalean, orokorrean guztiek "nahi bai baina ezin dut" jarrera dute, gehiengoak zerbait egiteko nahia adierazten baitu justizia global gehiago egoteko, baina adierazi dute bereziki maila indibidualean eta nazioarteko eremuan ez direla gai ikusten horrelakorik egiteko.

- Denek uste dute erabakiak hartzerakoan, beste pertsona batzuekin batera lan eginda eragin gehiago lortzen dela, bereziki tokiko alorrean. Hala ere, gazteak normalean ekintza puntual edo banakatuetan mugitzen dira, baina gutxitan parte hartzen dute ekintza kolektiboetan, besteak beste manifestazioetan edo hitzaldietan.

4. Enpresa Zientzietako ikasleen artean ohikoa da pentsatzea gauzatzen ari diren ikasketa horiek giza eskubideak, ingurumena, zaintzen ikuspegia eta Ekonomia Sozial eta Lankidetzazkoaren printzipioak errespetatzen dituztela. Hala ere, ia ikasleen erdiak baieztatu zuen ez dagoela ikuspegi ortodoxoa ez den beste ikuspegirik, eta horri aurretik adierazitako ondorioak gehituta, baieztatzen da ekonomia bidezkoago bat sustatzeko espazioa eta aukera, baita ere hiritar globalen eraikuntza Ekonomia eta Enpresan oinarritutako hezkuntza curriculumetik.

Ondoren, egindako galderei eman dizkieten erantzunen laburpena aurkeztuko dugu. Txosten osoa [hemen](#) ikus daiteke¹.

Eskerrik asko Ekonomia eta Enpresa fakultateko irakasleei. Gipuzkoako Atala eta Deustuko Unibertsitateko Mila Perezi, lan handia egin baitute inkestak ikasleen artean banatuz.

[1] gaztelaniaz bakarrik

I. Garapenari eta justizia globalari buruzko jakintza


1. Nora jotzen duzu garapenarekin eta justizia globalarekin zerikusia duten gaiari buruzko informazioa bilatu behar baduzu?

- Erdiak baino gehiagok (% 56,7) ez dute inoiz erakunde sozialen buletinetan bilatu informaziorik, ezta unibertsitateen buletinetan ere (% 63,1).
- Gainera, gehienek ez ohi dute telebistara, egunkarietara edo aldizkarietara jotzen.
- Internet da informazio-iturri nagusia inkestatuentzat, askotan, % 55,7rentzat eta, sarritan, % 29,7rentzat; hurrengo gizarte-sareak dira.
- Inkestatuen erdiek "Beste batzuk" aipatu dituzte informazio-baliabide gisa.

2. Ezagunak iruditzen zaizkizu garapenarekin eta justizia globalarekin zerikusia duten kontzeptu eta egitura hauek?

- Hauek dira kontzeptu ezagunenak enpresa-ikasketen ikasleentzat: *garatzeko bidean dauden herrialdeak, zor publikoa/nazionala, garapena eta Europako finantza-erakundeak (EIB, EBZ). Kontsumo arduratsua eta ekonomia sozial eta solidarioa* ere badira ezagunak, baita justizia soziala ere, hein txikiagoan.
- Alde handiagoa dago *bidezko merkataritzari, mikrokredituei eta BPGd-aren % 0,7 garapenerako lankidetzara bideratzeari* buruz gehiago eta gutxiago dakitenen artean. Nazioarteko finantza-erakundeetan (MB, NDF) ere bai.
- Gutxien ezagutzen diren kontzeptuak, inkesten arabera, *Tobin tasa, alde-biko lankidetzak, GGKEak eta garapen iraunkorrerako helburuak* dira.

1. grafikoa. Zenbait kontzeptuari buruzko ezagutza




II. Pobreziari eta bidegabekeriari aurre egiteko formulak


3. Adierazi zein diren, zure ustez, munduan (maila globalean) eta tokian (bizi zaren lekuan) pobrezia egoteko bost arrazoi garrantzitsuenak.

- Munduan pobrezia egoteko eman diren arrazoi nagusiak ustelkeria, hezkuntza urria, gizarteko berdintasun eza eta gerrak eta gatazkak izan dira. Lehen hirurak bat datoz tokiko pobrezia-rako emandako arrazoiekin.
- Neurri txikiagoan, laguntza ez eraginkorrari eta gainpopulazioari ere aitortzen zaie nolabaiteko garrantzia.
- Klima-aldaketa da garrantzi txikiena duen arrazoia, bai tokian bai munduan.
- Ondoren, maila globalean, NDFren eta Munduko Bankuaren politikak, merkataritza-politikak eta herrialde aberastuak jotzen dira garrantzi txikiena duen arrazoitzat.
- Hala ere, tokiko mailan, hondamendi naturalak, herrialde aberastuak eta gainpopulazioa dira garrantzi txikiena dutenak.
- Munduko eta tokiko mailan pobreziarako emandako arrazoiaren arteko alde nagusia klima-aldaketari, hondamendi naturalei eta gerrei eta gatazkei dagokienez gertatu da. Munduko eta tokiko pobreziarako garrantziari dagokionez bat datozen arrazoiak merkataritza-politikak, laguntza ez eraginkorra eta zorraren ordainketa dira.
- Hauek dira dispersio txikiena duten eta, beraz, garrantzi murrizta dutelako nolabaiteko adostasuna adierazten duten balioak: herrialde aberastuak (tokiko eremuan), merkataritza-politikak (bai tokiko bai munduko mailan) eta gainpopulazioa (munduko mailan).
- Dispersio handiena eta, hortaz, esleitzen zaien garrantziari buruzko adostasun txikiena dituzten arrazoi guztiak, aldiz, pobrezia globalean eragina luketenak dira: gerrak eta gatazkak, ustelkeria eta gizarteko berdintasun eza.

Arrazoi desberdinak balioeste aldera, inkestatuei eskatu zitzaienten arrazoi nagusiak hautatzeko eta 1etik 5erainoko puntuazioa emateko. Ondoren, munduko eta tokiko mailan pobrezia egoteko arrazoi nagusiak kokatu dituzten batez besteko posizioak erakusten dira; hain zuzen, balio baxuenak batezbestekoan garrantzitsuentzat jo diren arrazoiei dagozkie.

2. grafikoa. Munduko eta tokiko mailan pobrezia egoteko arrazoiak





4. Garapenerako lankidetzaren inguruko jarrerak: adierazi noraino zauden ados baieztapen hauekin.

1. taula. Garapenerako lankidetzaren inguruko jarrerak

	Erabat ados nago	Nahiko ados nago	Ez nago ados
Garapenerako lankidetzak ahuldu egiten ditu pobreziatik irteteko saiakerak, lagundu beharrean.	%9.8	%54.9	%35.3
Nire herrialdean jendea pobrezian bizi den bitartean, ez genuke dirurik gastatu beharko beste herrialde batzuetako garapenerako lankidetzan.	%20.7	%44.4	%34.9
Lotura handia dago garapenaren eta migrazioaren artean.	%25.6	%57.9	%16.5
Ezin da onartu mundua honela banatuta egotea: iparralde aberatsa eta hegoalde pobrea.	%66.0	%28.3	%5.7
Herrialde pobretuek euren arazoak konpondu beharko lituzkete, herrialde aberastuengana jo gabe.	%5.7	%22.2	%72.1
Iparraldeko aberastasunak hegoaldeko herrialdeen esplotazioan eta pobrezia du oinarri.	%36.6	%50.2	%13.2

- “Ezin da onartu mundua honela banatuta egotea: iparralde aberatsa eta hegoalde pobrea” moduko baieztapenak babesten dituzte eta “Herrialde pobretuek euren arazoak konpondu beharko lituzkete, herrialde aberastuengana jo gabe” modukoak arbuiatzen dituzte inkestatu gehienek.
- Egitura-eremuko erlazio kausalak ere, hala nola “Iparraldeko aberastasunak hegoaldeko herrialdeen esplotazioa eta pobrezia ditu oinarri” edo “Lotura handia dago garapenaren eta migrazioaren artean”; gehienek babesten dituzte, baina ez horrenbesteko konbentzimenduarakin.
- Inkestatu gehienak nahiko ados daude baieztapen hauekin: “Garapenerako lankidetzak ahuldu egiten ditu pobreziatik irteteko saiakerak, lagundu beharrean” (% 54,9) edo “Nire herrialdean jendea pobrezian bizi den bitartean, ez genuke dirurik gastatu beharko beste herrialde batzuetako garapenerako lankidetzan” (% 44,4).

5. Zer uste duzu egin behar litzatekeela Donostiako Udalak garapenean eta justizia sozialean gastatzen duen diruarekin?



Testuinguru honetan, ikasle gehienek ez dute jakin zein jarrera hartu Donostiako Udalak garapenerako eta justizia globalerako erabili beharko lukeen diruari buruz (% 39,1). Hala ere, ikasle gehienak kopurua handitzearen alde dago (% 32). % 23,2ren aburuz, berdin jarraitu beharko luke, eta % 5,6k bakarrik esan dute gutxitu beharko litzatekeela.

III. Kezka-maila eta pobrezia eta bidegabekeria globalaren erantzuleak

6. Zure ustez, zer-nolako eraginkortasuna dute eragile hauek berdintasun ezaren, pobrezia eta bidegabekeriaren aurka borrokatzean?

- Lehenik eta behin, azpimarra daiteke ikasleen bosten batek baino gehiagok ez duela jakin Mundu Bankuaren eta gizarte zibileko erakundeek (adibidez, GGKE eta NDF) eraginkortasuna balioesten; NDFri dagokionez, ia erdiek esan dute ez dakitela.
- Erakunde hauei esleitzen zaie eraginkortasun txikiena: Espainiako Estatuak (ez oso eraginkorra, inkestaturik % 66,7ren arabera), Eliza (% 65,3) eta sektore pribatua (% 54,2).
- Nolabaiteko adostasuna dago honi buruz: Nazio Batuak eta gizarte zibileko erakundeak dira organo eraginkorrenak pobrezia eta bidegabekeria globalaren aurka borrokatzean; hain zuzen, Euskadin inkestatutakoek % 15ek baino gehiagok jotzen dituzte oso eraginkortzat, eta laurden batek baino gutxiagok uste dute ez direla oso eraginkorrak.
- Inkestatu askoren ustez oso eraginkorrak ez diren arren, euskal administrazioak eta sindikatuak nahiko eraginkortzat jotzen dituzte inkestatutakoek % 47,8k eta % 38,9k, hurrenez hurren.
- Iritzi polarizatuenak Europar Batasunari, sindikatuei eta norbanakoei dagozkienak dira.

3. grafikoa. Eragileek berdintasun ezaren, pobrezia eta bidegabekeriaren aurka borrokatzean duten eraginkortasuna



7. Eragile hauetatik zeinek dute erantzukizun handiagoa pobreziaren, berdintasun ezaren eta bidegabekeriaren aurka jardutean?

- Ikasleen iritziz, pobreziaren, berdintasun ezaren eta bidegabekeriaren aurka jarduteko erantzukizuna, funtsean, herrialde aberatsetako gobernuari dagokie (baina desadostasun handia dago erantzunen artean) eta, gero, nazioarteko erakundeei, adibidez, Nazio Batuei.
- Gero, GGKE-en eta gizarte zibileko beste erakunde batzuen, herrialde pobretuetako gobernuen eta norbanakoen erantzukizuna egongo litzateke.
- Azkenik, sektore pribatuari egokitu litzaiokete erantzukizun txikiena.

IV. Gazteak garapenaren eta justizia globalaren aurrean

8. Kezkatzen zaitu herrialde pobretuetan pertsona asko pobreziako, berdintasun ezeko eta bidegabekeriako egoeretan egoteak?

Herrialde pobretuetan pertsona asko pobreziako, berdintasun ezeko eta bidegabekeriako egoeretan egoteak ikasleen % 68,3 kezkatzen ditu. Hala ere, bosten batek aitortzen du egoera horretaz jakitun dela baina ezin duela ezer egin konpontzeko, eta % 8,5 bere herrialdeko egoeraz kezkatuago daude.

9. Zure ustez, garrantzitsua da herrialde pobretuetako pertsonekin solidarioa izatea?

Erantzun horietan, inkestek garrantzi handia (% 62,5) edo nahikoa (% 31,7) ematen diote herrialde pobretuetako pertsonetikiko solidaritateari.

10. Eragina justizia globalean: adierazi noraino zauden ados baieztapen hauekin.

2. taula. Justizia globalaren gaineko eraginari buruzko adostasuna

	Erabat ados nago	Nahiko ados nago	Ez nago ados	ED / Ez daukat iritzirik
Justizia global handiagoa lortzeko beharrezkoa den aldaketa gerta dadin lagundu nahi dut.	%42.1	%51.0	%1.4	%5.5
Indargabe sentitzen naiz justizia global handiagoa lortzeko beharrezkoa den aldaketa gerta dadin laguntzeko.	%25.1	%44.0	%21.3	%9.6
Nire eguneroko ekintzek ez diete eragiten herrialde pobretuetako biztanleei.	%16.2	%39.2	%36.4	%3.2
Banakako ekintzek lagun dezakete justizia global handiagoa lortzeko beharrezkoa den aldaketa eragiten baina ez da nahikoa.	%39.7	%42.1	%12.7	%5.5
Ekintza kolektiboak eta banakakoak behar ditugu justizia global handiagoa lortzeko beharrezkoa den aldaketa gerta dadin.	%51.7	%36.0	%6.2	%6.2
Norbanako gisa, eragina izan dezaket nire tokiko/gertuko inguruneari eragiten dioten erabakietan.	%30.9	%49.1	%15.1	%4.8
Beste batzuekin batera lan eginez, eragina izan dezaket nire tokiko/gertuko inguruneari eragiten dioten erabakietan.	%38.1	%48.8	%7.6	%5.5
Norbanako gisa, eragina izan dezaket nazioarteko erabakietan.	%10.7	%27.9	%48.6	%12.8
Beste batzuekin batera lan eginez, eragina izan dezaket nazioarteko erabakietan.	%15.9	%40.5	%32.9	%10.7

- % 93,1ek justizia global handiagoa lortzeko beharrezkoa den aldaketa gerta dadin lagundu nahi dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, baina % 69,1ek horretarako hein batean edo guztiz indargabe sentitzen dira.
- Horrela, % 48,6k aitortzen dute norbanako gisa nazioarteko erabakietan eragina izateko gai-

tasun eskasa dutela, baina % 40,1ek gauza bera uste dute tokiko maila eragiten duten erabakiei dagokienez.

- Hala ere, tokiko eta hurbileneko inguruneari eragiten dioten erabakiak hartzeko banaka duten eragina handiagoa da. % 30,9 oso ados daude baieztapen horrekin, eta % 49,1, berriz, nahiko ados daude.
- Banakako ekintzek duten irismenari dagokionez, inkestatu gehienak nahiko ados edo erabat ados daude honekin: haien eguneroko ekintzek ez diete eragiten herrialde pobretuetako biztanleei (% 45,4); % 36,4k, ostera, kontrakoa uste dute.
- Inkestatutako % 82,8 neurri batean edo erabat ados daude honekin: *banakako ekintzek lagun dezakete justizia global handiagoa lortzeko beharrezkoa den aldaketa eragiten, baina ez da nahikoa.*
- Hala, adostasun handia dago erabakiak hartzearen gaineko eragina beste pertsona batzuekin lan eginez areagotzen delako ideiar buruz, eta adostasuna hainbat eta handiagoa da zenbat eta hurbilagoa izan erabakitzeke eremu geografikoa.

V. EAZko ikasleen partaidetza eta ikasketen orientazioa

Inkestatutako ikasleek azken hilabeteetan egin dituzten jardueren artean, birziklatzea nabarmentzen da, % 91,1ek egin baitute; ondoren, arropa, elikagaiak edo beste ondasun batzuk ematea dago, % 75,2k egin dute eta. Kontsumo arduratsua ia inkestatuen erdiek egiten dute (% 48,6), baita eskaerak sinatzea ere (% 47,8). Ezohikoagoak dira dirua kausa baterako ematea (% 39), manifestazioetara edo herritarren ekitaldietara joatea (% 29,7) eta, azkenik, eduki sozialei buruzko hitzaldi edo ikastaroetara joatea (% 25,2).

Era berean, ikasten duten ekonomia duen orientazioaz galdetu zaie. Ikasleen artean adostasun handiena sortu duen baieztapena hau da: enpresaren giza eskubideekiko errespetua eta bere erantzukizun sozialean irizpide etikoak bultzatzen ditu, irabazien maximizazioaren gainetik; hain zuzen, inkestatuen % 81,1 daude erabat edo nahiko ados. Bigarrenik, % 70,2 erabat edo nahiko ados daude honekin: ikasten duten ekonomiak ekonomia sozialaren eta solidarioaren printzipioetan oinarritzen diren enpresa-ereduei heltzen die. Hirugarrenik, % 66,5ek jarrera bera dute honi buruz: gizakiaren ongizatea hobetzera bideratuta dago eta, horretarako, bizitzaren eta ingurumenaren zaintza jartzen ditu erabaki ekonomikoen erdigunean. Dena den, ikasten duten ekonomiaren eta balio eta printzipio horien arteko lotura partziala da, baieztapen batek ere ez duelako lortu inkestatuen bosten baten erabateko adostasuna. Are gehiago, ia inkestatuen erdiek (% 49,8) baieztatu dute ikasten duten ekonomiak ez duela ikuspegi alternatiborik barne hartzen.

3. taula. Ekonomia-ikasketen orientazioa

	Erabat ados nago	Nahiko ados nago	Ez nago ados	ED / Ez daukat iritzirik
Gizakiaren ongizatea hobetzera bideratuta dago, eta, horretarako, bizitzaren eta ingurumenaren zaintza jartzen ditu erabaki ekonomikoen erdigunean.	%19.4	%47.1	%33.5	%10.2
Beste ikuspegi heterodoxo batzuk barne hartzen ditu, besteak beste, ekonomia feminista, ekonomia ekologikoa, ekonomia politikoa...	%7.7	%42.5	%49.8	%15.4
Ekonomia sozialaren eta solidarioaren printzipioetan oinarritzen diren enpresa-ereduei heltzen die.	%17.0	%53.2	%29.8	%9.2
Enpresaren giza eskubideekiko errespetua eta bere erantzukizun sozialean irizpide etikoak bultzatzen ditu, irabazien maximizazioaren gainetik.	%18.0	%63.1	%18.9	%15.3

VI. Espainiako eta Europako gazteekiko konparazioa

UPV/EHUko Donostiako Enpresa Ikasketen Eskolan egindako inkestak *Challenging the crisis* Europako proiektuaren esparruan egindako galde-sorta bera erabili du; horrek Grezian, Irlandan, Italian, Espainian, Eslovenian eta Portugalen bizi ziren gazteen informazioa biltzen zuen.

Populazioaren lagin bakoitzak konparazioa zailtzen duten alborapen diferentzialak ditu, Euskadin adin-tarte eta profil sozial zehatzetan ardaztu delako eta European lotuagoa egon delako beste herrialde batzuetatik datozen edo askotariko profiletako gazteen erakunde eta gizarte-mugimenduekin.

Hori esanda, EAZko ikasleen erantzunak eta Europako gazteenak aldagai hauetan aldentzen dira gehien:

- Zenbait kontzepturi buruzko jakintza murriztagoa, adibidez, GGKE-ei edo Tobin tasari buruz.
- Partaidetza erlatibo handiagoa alderdi politikoetan, [Espainiako inkestarekin](#) alderatuta.
- Euskadin pobrezia globalerako eman diren arrazoi nagusiek (ustelkeria, hezkuntza urria, gerrak eta gatazkak eta gizarteko berdintasun eza) kontraste handia dute Europako inkestakoei dagokionez. Euskadiko inkestatuentzat garrantzi txikiena zutenekin aurkakoa gertatzen da. Klima-aldaketa, NDFren edo Munduko Bankuaren politikak eta —neurri txikiagoan— merkataritza-politikak garrantzi txikienekoak dira Euskadiko inkestan, baina arrazoi nagusiak dira Europako inkestatuentzat.
- “Lotura handia dago garapenaren eta migrazioaren artean” eta “Iparraldeko aberastasunak hegoaldeko herrialdeen esplotazioa eta pobrezia ditu oinarri” baieztapenekiko adostasuna txikiagoa da Euskadin Espainian eta European baino, eta handiagoa da “Nire herrialdean jendea pobrezian bizi den bitartean, ez genuke dirurik gastatu beharko beste herrialde batzuetako garapenerako lankidetzan” edo “lankidetzarako erabiltzen den dirua bere horretan utzi behar da” baieztapenekikoa.
- Nazio Batuei, nazioarteko finantza-erakundeei, toki-administrazioei eta sindikatuei esleitutako eraginkortasuna Europako eta Espainiako inkestetan agertu zena baino handiagoa da, bereziki azken horri dagokionez. Gizarte zibileko erakundeei, berriz, eraginkortasun handiagoa esleitu zitzaion inkesta horietan.
- Pobreziako, berdintasun ezeko eta bidegabekeriako egoerak inkestatuen % 68,3 kezkatzen ditu; proportzio hori Europako inkestakoa (% 71,7) eta, batez ere, Espainiako inkestakoa (% 83,7) baino baxuagoa da. Bosten batek aitortzen du egoera horretaz jakitun dela baina ezin duela ezer egin konpontzeko, Espainiako eta Europako inkestetan lortutako balioen bikoitzak.
- Espainiako inkestako datuak bereziki bestelakoak dira herrialde aberastuetako gobernuari eta nazioarteko erakundeei esleitutako erantzukizunari dagokionez, erantzukizun txikiena dutenak baitira; hortaz, Euskadiko inkestan egindakoaren aurkako balioespena jaso dute. Gainera, areago azpimarratzen da GGKE-en eta gizarte zibileko beste erakunde batzuen eta herrialde pobretuen gobernuen erantzukizuna.
- Ez da hainbeste nabarmentzen banakako ekintzez gain ekintza kolektiboek lagundu dezaketela justizia sozial handiagoa lortzeko aldaketa egon dadin.

